Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Joxe Iraola Arruti*

*Donostia, Gipuzkoa (1925-2017)*



Aurkibidea

# Biografia



Igeldoko Aristondo baserrian jaioa, bertan bizi zen gurekin egon zenean ere. Igarara joan zen eskolara. Aita biriketako gaitzarekin hil zitzaien, eta Joxek urtebete egin zuen klinikan, bederatzi urte zituela. Anai-arrebetako batzuk gazte hil ziren, eta lau senide irten ziren aurrera. Hargin ibili zen, ur kanalizazioak egiten, arotz lanetan... denetik pixka bat ikasi zuen. Eta, gainera, 40 urte egin zituen Lizarriturri xaboi lantegian lanean. Aristondo nekazalturismoko etxea zen elkarrizketa garaian.

# Zintak

### DON-064

- **Proiektua**: Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2009-11-19
- **Iraupena**: 48 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

# Pasarteak

## 1. Igeldoko arbela hargin lanetarako

- **Erref**: DON-064/005
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:07:01. **Bukatu**: 00:08:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Etxeginak

**Laburpena**:
Hargin lanetan ibili zen mutikotan eta Igeldoko harria erabiltzen zuten, arbela. Martin Artola eta Antonio ziren nagusiak.

## 2. Egurrezko aldamioekin egin zuten Añorgako eliza

- **Erref**: DON-064/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:08:51. **Bukatu**: 00:09:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Etxeginak

**Laburpena**:
Añorgako eliza egiten aritu zen hargin bezala. Egurrezko aldamioak erabiltzen ziren orduan. Aldamioak lekuz aldatzen aritu zen.

## 3. Harria ebakitzeko tresnak

- **Erref**: DON-064/008
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:09:51. **Bukatu**: 00:10:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Etxeginak

**Laburpena**:
Harria ebakitzeko erabiltzen ziren tresnak aipatzen ditu. Hargin mailua nolakoa zen azaltzen du.

## 4. Arroketan arrantzan

- **Erref**: DON-064/014
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:22:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza

**Laburpena**:
<p>Arroketara askotan joaten zen arrantzan. Zizarea erabiltzen zuten amu bezala. Zertzuk hartzen zituen aipatzen du. Harrapatutakoa etxerako zein saltzeko izaten zen.</p>

## 5. Sagardoa egiten

- **Erref**: DON-064/016
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:22:48. **Bukatu**: 00:26:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

**Laburpena**:
Sagardoa etxe askotan egiten zuten. Sagardoa egiten sagar-motak aipatzen ditu. Dolarean egiten zen eta kanpoko jendean ere etortzen zen beraienera. Sagardoa makinaz txikitzen zuten, Ondoren zabaldu eta beratzen izaten zuten; sagar-motaren arabera denbora desberdina behar zuen. Pitarra ura botatako sagardoari deritzo.

## 6. Baserrietan ura jartzen

- **Erref**: DON-064/019

- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:27:42. **Bukatu**: 00:28:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena**:
Igeldoko baserri askotan eraman du ura Joxek. Aristondon beti izan zuten ura, bere aita zenak jarri zuen-eta. Auzotar asko iturrira joaten ziren ur bila.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2025-11-14*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com